



HIRUBURUAK
2015/11/06
GAZTEEN JOAN ETORRIAK

MUGIKORTASUN POLITIKEN
OSOTASUNA HELBURU
ONDORIO NAGUSIAK

EZTABAIDA-DINAMIKAK
DINÁMICAS DE DEBATE
HIRU-BURUAK

*gazteak / jóvenes
*politikariak / cargos políticos
*teknikariak / cargos técnicos



GAZTEEN
JÓVENES,
LAN MUGIKORTASUNA
MOVILIDAD LABORAL
ETA ITZULERA
Y RETORNO



azaroak 6, Gasteizen Vitoria-Gasteiz, 6 de noviembre
12:00 etatik 13:30ak arte de 12:00 a 13:30

EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola Facultad de Empresariales UPV-EHU
Gradu-Aretoa Salóñ de Grados

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua  Consejo de
la Juventud
de Euskadi

informazioa / información:
945.22.06.01
partehartze@egk.org
www.egk.org



Laguntzen dute:
Colaboran:



1. Testuingurua
2. Metodologia
3. Mugikortasuna
4. Itzulera neurriak
5. Ondorioak

www.egk.org

Ramiro de Maeztu, 15, 01008 - Vitoria-Gasteiz / 945 22 06 01
Autonomía, 44, 48010 - Bilbao / 944 43 61 43
Andia, 11 nagusia, 1. pisua, 20004 - Donostia / 943 42 97 67



1. TESTUINGURUA

Gazteei zuzendutako mugikortasun eta itzulera politiken gaineko jardunaldian atera diren ondorioak azaldu aurretik komenigarria izan daiteke testuinguru txiki bat egitea.

Azken urteetan egin diren hainbat erreformaren ondorioz gazteen egoera zaugarria nabarmen sakondu da. Langabeziak gora egin du, langabezi tasa %28,4an kokatzen da¹ eta lanean diharduten gazteen lan baldintzak kaskartu egin dira, gazteen %56,8ak aldi baterako enplegua² du eta %21,2ak lanaldi partziala³ beraz, ezegonkortasuna nagusitu da.

2012an EGKk gai estrategiko honen gainean jarri zuen atentzioa, #sogazteak proiektuaren bitartez gaztea den lan taldearekin batera egoera hau aztertzen eta ordutik neurriak proposatzen aritu da.

Kalitatezko enplegu bat topatzeko zailtasunari aurre egiteko asmoarekin hainbat gaztek euren burua atzerriratu dute. Horietako gazte batzuk administrazio desberdinek sustatu izan dituzten bekak baliatuz joan dira. Egun, Euskadiko gazteen mugikortasun maila erreala ezagutzeko ikerketarik ez da garatu eta beraz, atzerriratu diren gazteen zenbateko zehatza ez dugu ezagutzen.

Europako finantziarioa duten bekak, Erasmus+ programaren barruan daudenak, hala nola Erasmus, Erasmus Mundus eta Leonardo da Vinci edota Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen Global Training izeneko diru-laguntzak gazteen enplegu aukerak handitzeko asmoarekin sortu izan badira ere atzerrian bizitzeak, bai ikasten eta bai lan egiten, alde onak eta txarrak izan ditzake. Horregatik hain zuzen ere, EGKk “gazteen lan mugikortasuna eta itzulera” izeneko topaketa antolatu du, gazteek mugikortasun politiken gainean dituzten iritziak, bizipenak, usteak, kritikak eta proposamenak ezagutzeko.

2. METODOLOGIA

Gazteen bizi baldintza minimo batzuk bermatzea ezinbestekoa dela uste du EGKk, eta gazteen egoeraren nolakotasuna aztertzeko helburuarekin azaroaren 6an jardunaldi bat antolatu zuen Gasteizen. EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan egindako “gazteen lan mugikortasuna eta itzulera” topaketara 25 pertsona bertaratu ziren. Behin baino gehiagotan EGKk erabili duen HiruBuruen dinamika jarraitu zen. Hau da, gazteak, teknikariak eta politikariak eztabaidatzeko bildu ziren. Bertan, ikuspegi desberdinak azaleratu ziren eta horiek islatzea da dokumentu honen helburua.

¹ Gazteen Euskal Behatokia, langabezi tasa 2014

² GEB, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen aldi baterako lan kontratudunen tasa 2014

³ GEB, 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen lanaldi partzialeko enplegu-tasa 2013



Partaideen profilari dagokionez, nahiko anitza izan zela esan daiteke. Generoari erreparatuz gero, hamahiru gizon eta hamabi emakume egon ziren. Adinari dagokionez, gehiengo gaztea zen, 15 eta 30 urte arteko 14 gazte, 31 eta 45 urte arteko hiru pertsona eta 46 urtetik gorako zortzi pertsona gerturatu ziren. Politikari bakoitzetik gazte bat parte hartu zuen, hau da, bederatzi politikari eta bederatzi gaztek parte hartu zuten. Teknikariak zazpi izan ziren, EGKko lau langile, irakasle bat eta Gasteizko bi Udal Teknikari.

Europako Legebiltzarreko kidea den Izaskun Bilbaok Europan bultzatu izan diren Gazteria eta Mugikortasun Politiken gaineko sarrera bat egin eta gero, partaideak taldeetan banatu ziren eta hurrengo ataletan azalduko den bezala mugikortasun eta itzulera politikak izan zituzten eztabaidagai. Aipatutako politikarien administrazioei dagokienez, Eusko Legebiltzarreko eta Arabako Batzar Nagusiko kideak hurbildu ziren. Hauek EAJ, EH Bildu, Podemos, PP eta PSEko ordezkariak izanik.

Partaideak ordu eta erdiz jardun ziren Europa, Espainia, Euskadi eta Gasteizko politiken ondorioen gainean hitz egiten, kritikak adierazten eta estrategia baterako ideiak luzatzen. Modu paraleloan, bi eztabaida talde egin ziren, talde batek mugikortasun politikak lantzen zituen aldian beste taldeak itzulera politikak lantzen zituen. Hogei minutuko denbora agortzean taldeak gaia aldatu eta ondoko taldeak egindako ekarpenak abiapuntu bezala erabilia eztabaidarekin jarraitzen zuen.

Idazkari rola gauzatu zuten partaideek ekarpenak “adostasunak” eta “desadostasunak” kategorietan sailkatu zituzten. Adostasunak baliatuz ekarpen desberdinak egin ziren politika oso baten estrategia garatzerako orduan, dauden aukera desberdinak azalertzeko.

3. MUGIKORTASUNA

Esan bezala, mugikortasun politiken gaia bi taldeetan jorratu da. Hurrengo lerroetan agertzen diren ideiak partaide desberdinek adierazi dituzte. Adostasun eta desadostasunak adieraziko badira ere, adostasunei garrantzia berezia emango zaie.

Mugikortasun politikak: kontzeptua eta definizioa

Mugikortasun politiken kontzeptua nahasia dela adosten da, helburu desberdinak dituzten politikak modu berean izendatzen direlako. Izan ere, hezkuntza helburu duten mugikortasun politikak bideratzeko eta enplegua helburu duten mugikortasun politikak sustatzerako orduan pentsatu behar diren estrategiak desberdinak dira, bai kausei eta bai ondorioei dagokienez.

Mugikortasun politikak batez ere atzerriratze politikak izan direla hausnartzen da, hau da, mugikortasunaren bi norabideetatik bakarra landu dela, joatea. Eta aldiz, itzulera politika ez dela garatu. Horregatik, mugikortasuna joatearekin lotzen dela esaten da.



Mugikortasun kontzeptuaren erabilpena bera oso eztabaidatua da. Ikuspegi ideologiko bat txertatua duela esaten delako. Batzuk, mugikortasun hitza eufemismo bat dela diote eta nahiago dituzte diaspora, atzerriratzea edota migrazioa bezalako hitzak erabili.

Mugikortasun politikak: aukera edo beharra?

Egun, lantzen diren mugikortasun politikak krisiaren aurretik ere lantzen zirela esaten da, baina gazteen egoera aldatu egin dela eta politikak maila berean osatu edo aldatu ez direla gogoeta egiten da.

Gazteentzako mugikortasuna aukera edo beharra den galdetzerakoan aho batez erabaki aske bat izan beharko litzatekeela esaten da, hau da, modu boluntarioan hartzen den hautua, kanpoko eraginik gabe. Baina, krisiarekin batera, joan nahi duten gazteak eta joan nahi ez dutenak euren burua atzerriratzeko beharra ikusi zutenak eta ikusten dutenak daudela esaten da.

Hipotesi bat botatzen da ere. Baliteke mugikortasuna aukera moduan hartzen duten gazteek arrakasta gehiago izatea atzerrian eta jaioterrira ez itzultzea. Aldiz, burua behartuta joaten diren gazteak gehiagotan porrot egitea eta itzuli behar izatea.

Partaideek garrantzia berezia eman dizkiete egoera baldintzatzen duten gai desberdinei, hauek modu labur eta ulergarri batean azalduko dira hurrengo paragrafoetan. Gaien arteko lotura oso estua da eta batzuk besteengan duten eragina kontuan hartuta multzokatze hau saiakera bat dela ulertu behar da.

a. Datu eza

Proposamenak egiterakoan politikari zein gazteek gabezi handi bat dutela onartzen dute, eta hori datu eza da. Atzerriratu diren gazteen kopurua ezagutzea oso zaila da gaur egun, eta horrekin batera gazteek dituzten bizi baldintzen nolakotasunaren azterketa bat egiteko oztopoak hamaika dira.

Gazteen Euskal Behatokiak egoerarekiko hurbilpen bat egiteko helburuarekin migrazio tasa delakoa sortu du⁴. Tasa hau estimazio bat da eta erroldan oinarritzen ditu bere datuak. Datu-iturriak berak, hau da, erroldak gabezi batzuk aurkezten ditu. Izan ere, bueltan hainbat eskubide galtzeko beldurra dela eta gazte askok ez dute erroldan baja ematen. Urte batzuk dira tasa egiten dela eta egoera orokorraren irudi bat izateko balio badu ere gaiak hartzen duen dimentsio osoa ezagutzeko mugak aurkezten ditu.

Espainia mailan, Injuvek⁵ gazteriaren gaineko datu batzuk elaboratu ditu, bertan 2009 eta 2013 urte artean 218.000 gazte Espainiatik kanpo migrazio prozesu bat hasi dutela esaten da. Eta horietatik %68,4a kotsulatuan izena eman ez dutela

⁴ GEB, EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen atzerrirako emigrazioa.

⁵ La emigración de los jóvenes españoles en el contexto de la crisis. Análisis y datos de un fenómeno difícil de cuantificar. Injuve, 2014ko apirila.



onartzen du. Datuek nazionalitatea erakusten dute, ez ordea gazteen jatorrizko autonomia erkidegokoa beraz, egun, horien artean zenbat euskaldun dauden esateko aukerarik ez daukagu.

b. Informazio falta

Gazteek mugikortasun politiken gaineko informazio gutxi dutela diote eta informazio hori modu erreza eta ulergarri batean eskuratzeko aukera ezinbestekotzat hartzen dute. Modu berean, informazio hori goiztiarra eta integrala izan behar dela esaten dute, alde onak eta txarrak argi geratu behar direla azpimarratuz. Informazio hori aukera desberdinak konparatuz eta gazteei egokituta egon beharko litzatekeela aipatzen da. Adibidez, Erasmus diru-laguntzen kasuan, helmuga den herrialdearen arabera diru-laguntzak desberdinak baldin badira eta herrialde konkretu batean bizitzeko baldintza duinak eskaintzen ez badituzte, kopuru hori osatzeko bideak azaldu beharko lirateke aipatutako informazioan.

c. Esperientzia

Partaideek atzerrira joatea bizipen bat dela adosten dute. Berez ez du zertan ona edo txarra izan, positiboa edo negatiboa bezalako adjektiboak saihestea gomendatzen dute.

Partaide batzuk esperientzia horretan eman daitezkeen ikasketak gorai patzen dituzte, hala nola, kultura desberdinetako pertsonetikiko harremana, garatu daitezkeen ikuspegi zabala e.a.

Beste batzuk ordea, bizipen txarrak ere ematen direla esaten dute. Besteak beste, etorkin etiketari jarraiki eskainitako tratua, enplegu duin bat ez lortu izanagatik alokairua ordaintzeko adina dirua ez izatea eta gurasoei eskatu behar izatea. Bizipen hauen ondorioz, Euskadin atzerritarrei eskaintzen zaien tratuaz hausnartzeko beharraz hitz egiten da ere.

Helmuga den herrialde horren ezagutza minimo batzuk oso beharrezkotzat jotzen dira. Aipatutako hizkuntzaren ezagutzaz gain, kulturaren nondik norakoak, gizartearen egiturari dagozkionak eta nola ez, herrialde bakoitzak dituen berezitasun administratibo eta legalak.

d. Aukera berdintasuna urratzen da

Partaide batzuk aipatutako esperientzia hori gauzatzeko aukerak gazte guztientzako ez direla berdinak hausnartzen dute, helmuga den herrialdearen arabera desberdinak direla esaten da. Norbanakoek dituzten gaitasun pertsonalak hala nola, prestakuntza maila eta hizkuntzaren ezagutza edota jatorrizko baldintza sozioekonomikoak ezin direla ahaztu azpimarratzen dute eta gurasoen babesa duten gazteek bidaiatzeko aukera gehiago dituztela esaten da. Gehienetan, nolabaiteko maila ekonomikoa duten familietako gazteak joateko aukera gehien dituztenak direla esaten da ere.



Mugikortasun beka batez ere industriari lotutako enprekin hitzartzen direla esaten da, diru-laguntzak eskuratzerakoan bai joateko eta bai atzerrian geratzeko ikasketa sozialak dituzten gazteek zailtasun gehiago dituztela aipatzen da. Adibide moduan, ikerketa sozialak gauzatzeko bekek behera egin dutela esaten da.

e. Mugikortasun motak

Prestakuntzari lotutako mugikortasuna eta lan-mugikortasuna oso argi desberdintzearen beharra azpimarratzen dute partaideek. Batetik, helburuak oso desberdinak direlako eta bestetik, bidaiariek ezagutu beharko dituzten baldintzak desberdinak izango direlako.

i. Hezkuntza helburu

Partaide batzuk formakuntzari lotutako mugikortasuna ikasketa prozesuaren azken faseetan desiragarria dela diote, garapen pertsonalari begira positiboa izan daitekeelako. Etorkizunean enplegua lortze aldera aukerak gehitzen dituela esaten da. Kontrako iritzian, mugikortasunak enplegu bat ziurtatzen ez duela argudiatzen da.

ii. Enplegua helburu

Enpleguari lotutako mugikortasuna aukera izatetik beharra izatera pasatzen ari dela azpimarratzen dute gazteek. Partaideek egoera hau oso larritzat hartzen dute atzerriratzea beharra bihurtzen denean prekaritate maila altuak pairatzeko aukerak handitzen direla uste delako.

Batetik, gazteek aurreikuspenak egiteko zailtasun ugari dituztela esaten da, herrialdearen berezitasunak ezagutzeko informazioa eskuragarria ez delako eta hori bidaiari hartzen diren arriskuak handitzen dituelako. Bestetik, gazte batzuk, bidaiari planifikatu barik egiten dutela esaten da, gazteek ez dutela denbora hartzen zer beharko duten pentsatzeko (enplegua lortu arteko diru kopuru bat aurrezte, gizarte segurantzako zenbakia, bestelako paper batzuen eguneratzea...)

f. Partaideek luzatu dituzten ideiak

Aipatutako egoerei aurre egiteko zenbait ideia luzatu ziren:

i. Gazteen mugikortasuna aztertuko duen diagnostiko kualitatibo bat garatzea. Gazteek noiz, nora eta nola joan diren jakiteko. Batez ere, atzerrian dauden gazteen kopuruaren datu errealak eskuratzeko eta kanpoan dauden gazteen egoeraren nolakotasuna ezagutzeko, hau da, egoera prekarioan dauden edo ez, itzuli nahi duten edo ez e.a. Partaideek diagnostiko honetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak jorratzea gomendatzen dute.

ii. Protokoloak garatu. Joan aurretik gazteek dituzten galderari erantzuna emango dioten bideak egituratu behar direla esaten da. Helmuga den herrialdea aukeratzeko, prestatu behar dituzten gauza guztiak aurreikusteko, eta eskura dituzten laguntzak ezagutzeko. Lehen aipatu den bezala, material hau eskuragarria eta ulertzeko erreza



izan beharko litzateke eta bidaiatzearen alde onak eta txarrak azaleratu beharko litzuzke.

iii. Atzerrian egon den, eta dagoen, jendearen esperientziaz baliatzea gomendatzen da. Herrialdera heltzean harrera egingo duten pertsona edo talde batzuen gainean hitz egiten da.

4. ITZULERA NEURRIAK

a. Datu eza

Joan diren gazteen artean itzuli den zenbatekoa ezagutzeko itzulera tasa erabiltzen da⁶. Datu zehatzak lortzea zaila da, oro har, gazteek erroldan duten egoera eguneratzen ez dutelako, garrantzitsua da gogoratzea atzerrian bizitzeak bueltan hainbat eskubideren galera suposatu dezakeela. Adibidez, Londresen bizi den gazte bat Ingalaterrak ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko bertan erroldatzeko beharra du, ofizioz Euskadin duen erroldan baja ematea suposatzen du horrek eta ondorioz, erroldako antzinatasuna galtzearen beldurra dago. Ondorioz, bueltatu nahiko balu zenbait zerbitzu jasotzeko eskubidea izateko epe luzeak itxaron beharko litzuzkeela uste da. Hala nola, Oinarrizko Diru-Sarreraren Errenta eta Etxebideko laguntzak jasotzeko.

Hala ere, itzulera tasaren tendentzia oso baliagarria da eta horren arabera 2010ean atzerrirako migrazioa gora egin du eta aldiz estatura migratzen dutenen kopurua behera egin du. 2006an %70a bueltatu egin izan da eta 2014an ordea %43a da itzultzen dena.

b. Eskubideak

Gazteria heterogeneoa da eta mugikortasuna bultzatu/eragiten dituzten kausak oso desberdinak direla aipatzen da

Hala ere, guztiengan eragina duten ezaugarri komun batzuk aipatzen dira. Errolda da horietako bat. Partaide batzuk diotenez, errolda eguneratua izatearen garrantzia ezezaguna da gazte askorentzat. Etxez aldatzean garrantzitsua da boto eskubidea gauzatzeko, baita osasun sistema edota gizarte zerbitzuen sistemarako sarbidea baldintzatzen duelako. Atzerriratzean ere errolda mugarrria dela uste da.

Partaideek gazte ugari erroldaren garrantzia ezagutzen ez dutela uste dute. Baina gomendagarria litzateke gogoratzea, beste partaide batzuen ustean, erroldan baja ez emateak, ondorioztatzen dituen eskubide galeraren beldurrak eragiten duela.

c. Estrategia baten beharra

Mugikortasun politiketan gazteen atzerriratzea bultzatu egin dela aipatzen da, ez ordea itzulera.

⁶ GEB, EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen atzerritik itzulitakoen tasa



Partaideek egoera hau aldatzeko estrategia baten beharra ikusten dute. Batetik, dagoen informazio guztia bateratzeko eta benetan joatea erabaki bat izan dadin. Hau da, alde onak eta txarrak balantzan jarri eta aukera egitea ahalbidetzen duen informazioa. Bestetik, bueltan eman daitezkeen ustezko galeren informazioa zabaltzea eta horiek murriztu edota saihesteko moduak lantzea bai norbanakoen ikuspegitik baina baita gazteen kolektiboaren ikuspegitik.

Bestetik, jendarteak atzerrian egon diren gazteen jakintzaz ez dela baliatzen esaten da. Hau da, gaur egun, gaitasun berri guzti horiek, lortzekotan, bideratzeko modurik ez dagoela. Gazteek bueltan direnean zerotik hasi behar dutela esaten da, ez dutela laguntzarik. Egoera hau gazteen kalterako ez ezik jendarte osoaren kaltean jotzen duela esaten da.

d. Itzulera politika estrategia bat garatzeko ideien zerrenda

- Informazioa eskuratzeko ikerketak bultzatu
- Europaz kanpoko herrialdeekin hitzarmenak egin Gizarte Segurantzak ematen dituen eskubideak mantentzeko.
- Europako herrialdeek dituzten Gizarte Segurantza sistemen komunikazioa bultzatzea eta bateragarritasun bat bilatzea.
- Diru Sarreren Oinarriko Errenta Europarra bultzatu
- 8/1994 Legea betearazteko protokoloa garatu, itzulera galtzen diren eskubideak berreskuratzeko. Horrela, diru sarrerak bermatzeko errenta, gizarte segurantza, etxebizitza publikoan eta abarretan ematen den sarbiderako zailtasunak murriztuko liratekeen.
- Lanbidek "itzuli nahi duen emigratzailea" moldea aurreikusi badu ere ez dago garatuta, informazioa falta da, zelan gauzatu daitezkeen erregulatu behar da.
- Itzulera politikak zabaltzea (komunikatu)
- Barne-hartze programak. Helburu hirukoitza lukete. Batetik, bueltan diren gazteei egoeraren gaineko informazioa erraztea. Bestetik, ekartzen duten jakintza berri horiek bideratzeko saiakera. Eta azkenik, joan nahi duten beste gazte batzuei egon diren herrialdearen gaineko informazioa ematea, nolabaiteko figura bat sortuz "agente interkultural". Zeinek aholkulari lana egingo lukeen.

5. Ondorioak

Gazteek Euskadin bizi duten egoera larritu egin da azken urteetan eta horren ondorioz batzuk burua atzerriratzeko hautua egin dute.

Jardunaldian parte hartu duten pertsonak Euskadin, Estatuan eta Europan diren baldintzak hobetu behar direla uste dute. Gazteek jaioterrian bizi eta garatzeko eskubidea bermaturik izan behar dutela uste dute, atzerriratzea benetan aukera bat izan dadin eta ez egoerari aurre egiteko modu bakarra, hau da, beharra.



Egun, gazte askok gurasoen babesa behar dute, lanean diren gazteen ehuneko handi bat egoera prekarioan egiten du bere lana eta ondorioz bizitza autonomo bat garatzeko dituzten zailtasunak asko dira, adibidez, etxebizitza bat alokatzeko adina diru ez izatea.

Euskadin enplegu duina sortzea beharrezkoa dela ez da eztabaidagarria izan. Hori lortzeko proposatzen diren bideak ordea nahiko desberdinak dira. Gazteek enplegu bat lortzeko dituzten aukera desberdinak eztabaidatu ziren, euren artean ekintzailtza. Estrategia honetan 55 milioi euro inbertitu direla aipatu da baina partaide batzuk oposizioz aukera honek inplizituki arrisku batzuk dituela esan dute, eta aukera berdintasuna urratzen dela aipatuz. Izan ere, enpresa bat sortzeko beharrezkoa den dirua, denbora eta esperientzia gazte guztien eskura ez dagoela adierazi da.

Bestetik, Egun, Euskadin 20.000 lanpostu bete gabe direla aipatu da. Informazioaren Teknologiarri lotutako lanpostuak, Big Data deituriko moldeari lotutakoak. Ideia horri aurre eginez, Hezkuntza Sistema dauden lanpostuetara ez dela moldatu behar adierazi dute bestelako partaideek.

Jardunaldian “Gazte Bermea” programaren gabeziak (langabezia dauden gazteei lau hilabetetan enplegu eskaintzak izatea ziurtatu behar duena) azaleratu egin dituzte partaideek baita programa hori beste modu batean antolatzeko beharra ere. Gainera, programaren helburu nagusia epe laburrean estatistikak hobetzea baino ez duela bilatzen esan da.

Atzerrian dauden gazteei dagokienez, informazioaren beharrean gaudela adostu da. Kanpoan dauden gazteen kopurua eta bizi duten egoeraren nolakotasuna ezagutzea beharrezkoa dela azpimarratu da. Gazteena kolektibo anitza bada ere beharrian orokor batzuk identifikatu eta modu planifikatuan aurre egin behar zaizkiola adostu da eta erakunde publikoei esfortzu berezia eskatu zaie helburu hau lortze aldera.

Beraz, jardunaldian egindako ideiak jarria maila administratibo desberdinak hartzen dituzte kontuan. Hauen bitartez mugikortasun estrategia bat garatu nahi da, non txanponaren bi aurpegiak kontuan hartzen diren, joana eta etorria. Horretarako administrazioen arteko lankidetzak beharrezkotzat jotzen da. Lehen aipatu bezala politiken integralitatea edo osotasuna ezinbestekoa litzateke gazteon eskubideak bermatzeko eta eman daitezkeen eskubide galerak saihesteko.

4.1. Hurrengo pausuak

EGKk topaketan landutako ideiak zabaldu eta jakinarazteko helburuarekin txosten hau idazten du. Batetik, partaideek gertatu zenaren irudi orokor bat izan dezaten eta euren parte-hartzearen bitartez lortutako produktuaren emaitzak ikus ditzaten. Izan ere, esku artean gazteria politikan eragiteko erreminta bat dugu. Bestetik, egon ez



ziren baina interesa duten pertsonen gertatutakoaren informazioa eskura izan dezaten.

Jardunaldian atera diren ideiak EGKren enplegu lan taldeak landu egingo ditu hemendik aurrera. EGKren eskura eta eskutik kanpo daudenak identifikatu eta lehentasun batzuk ezarriko ditu. Ondoren, bere gain hartu nahi dituen jomugak eztabaidatu egingo ditu denborarekin administrazioari zenbait proposamen egiteko helburuarekin. Proposamen hauek #sosgazteak proiektuaren barne landuko dira.

Bestalde, HiruBuruak egikaritzen jarraituko dira. Gazteak, politikariak eta teknikariak elkarrekin eztabaidatzera jartzen dituen dinamika parte-hartzaile honen balio demokratiko handia baita.